

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Ibilgailuak espaloietan zehar sartzeko eta aparkalekua gordetzeko (pasabideak) tasaren 2022ko errolda jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldiaren hasiera

Eginda dago udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu be-reziagatik (A epigrafea), alegia, ibilgailuak finken barrualdera espaloien gainetik sartzegatik eta horietan bide publikoan aparkalekua gordetzeagatik, ordaindu beharreko tasaren 2022ko errolda. Hortaz, honen bidez, errolda hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodun ez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu eta, hala badagokio, egoki deritzeten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2022ko otsailaren 11tik apirilaren 11ra.

B) Betearazte aldia: 2022ko apirilaren 12tik aurrera betearazte aldia hasiko da, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Santander edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak izanik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Alkatetzari, ordainketa egiteko borondatezko epean edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Lapuebla de Labarca, 2022ko urtarrilaren 5a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ